



# 1. SARRERA.

## 1.1 - IKUSPEGI OROKORRA.

Datuak eta zehaztasunak eskatu zaizkit txosten honetarako, lehengoaren balantze bat eta gerokoaren zirriborro bat. Ordea, datu zehatzetara ezin jaitsiko gara, Kultura oso eremu konplexua baita, anitza oso: bertan eginiko nahiz kanpotik jasotako produktuek osatzen dute kultura, etengabeko harremanean. Kultura hiriburuetan nahiz herri txikietan bultzatu beharra dago, bere mailarik jasoenean nahiz zabalenean (eskuragarrienean), modu gero eta aisearekin lotuagoan, industriaren parametroetatik gero eta gertuago. Kulturaren berezko balioei eta gure kulturaren berezitasunari arreta berezia zor die Sail honek, baina komunikazio sareen eta merkatuen beharrak baztertu gabe: mezuaren kalitate kulturalaz gain, jendearengan duen harrera eta eragina ere baloratu beharrean gaude.

Berezko konplexutasun horiez landa, bi hizkuntza dituen herri batean egin behar dugu lana, biak errespetatuz, errespetu horren izenean egoerarik ahulenean dagoena (euskara) modu berezian lagunduz, eta nazioarteko beste hizkuntzen zubia ahaztu gabe. Azkenik aipatu kulturaren arlo bakoitzak (arte, literatura, dantza, musika, antzerkia, ikusentzunezkoak, etab.) egoera berezia bizi duela, txosten honen esparruan banaka zehaztu ezingo duguna.



## 1.2 - EUSKARA KULTURAN.

Orohar, hainbat funtzio betetzen du hizkuntzak kultur jardunean, guztiak aldeberean garatu beharrekoak. Hiru puntutan sailkatuko ditugu:

1. Kultur ekintzak euskaraz egitea. Euskara da kultur hizkuntza.
2. Ekintza horretarako antolaketa, kudeaketa, prestaketa, etab. euskaraz egitea. Euskara da lan hizkuntza.
3. Kanporako komunikazio ahalegina (informazioa, publizitatea, etab. euskaraz egitea). Euskara da informaziorako hizkuntza.

Bestalde, bi motatako kultur jardun bereiziko dugu: hitza erabiltzen dutenak (literatura, antzerkia, zinema, etab.) eta ez dutenak (arteak, musika, dantza, etab.). Hitza erabiltzen dutenen kasuan, kultur jarduna euskaraz izan dadin ahalegindu beharko genuke, eta beraz euskara hiru funtzio horietan erabili; bestetan, euskara lan eta informazio hizkuntza izan dadin saiatu beharko dugu.

## 1.3 - ILDO NAGUSIAK.

Batera nahiz bestera, ildo nagusiak hauexek ditugu:

Herri elebidunaren ikuspegitik, euskarazko kulturari balio berezia ematea da gure xede nagusietakoa, erakargarria ez ezik, beharrezkoa ere gerta dadin. Euskarazko kulturak aurrean duen erronka ikaragarria Administrazioaren babesaz lehuntzeko eta eskurago egitea dugu xede, baina kontutan harturik oztopoak





lehun genitzakeela, baina inolaz ere ezingo ditugula ekidin, ezinezkoa baita euskal kultura kulturaren arazo nagusietatik aparte matentzea (industria, mundializazioa, ikusgarritasunaren arazoak, etab). Kulturaren desafioei ezin izan eta ezin izango die Administrazioak bakarrik aurre egin. Euskararen auzia bideratzeko arduran ere sektore profesionalen lankidetzaz bilatu beharko dugu, eta orohar gizarte guztia.

Arloan arloko, lekuan lekuko eta kasuan kasuko neurriak izan beharko dute, eta beraz, borondate argiaz gain, malgutasuna beharko da, hots, egoerari era desberdinetan eta irudimentsuetan erantzuteko gaitasuna: horretarako, egindakoa zuzentzeko eta bideratzeko, kontrol erizpideak premiazkoak ditugu. Euskararen egoera bereziak kontrolerako erizpide bereziak eskatzen dituenek, euskal kulturaren inplikaturak dauden guztiekin adostu beharko litateke, ahal izanez gero, erizpide horiek, baina beti ere Administrazioaren ahalbideak mugatuak direla jakinik.

Euskarak berak bezalatsu, euskal kulturak ere "erabilpenarena" du arazoa. Euskal kultura erakargarria, onuragarria, erabilgarria eta Euskal Herriarentzat ezinbestezkoa egitea da gure xedea.





## 2.- ERIZPIDE NAGUSIAK.

### 2.1- ELEBITASUNA.

Garbi dago Euskal Herriak, orohar, euskararen apustua egina duela, eta Administrazioari euskara sustertzeko, indartzeko eta hedatzeko eginkizuna eman diola. Borondate hori ez dago ordea gizarte hutsik euskalduna aldarrikatzearekin berdintzerik, eta ez digu ematen gizartea hutsik euskalduna balitz bela jokatzeko baimenik.

Bi dira Euskal Autonomia Elkartean hizkuntza ofizialak, eta biak dira Sail honen ardurakoak. Bietan egiten, antolatzen eta jasotzen da kultura, (eta gainera, nazioz gaindiko kulturaren aro honetan, ingelesa etab. ere kontutan hartu behar izaten ditugu, gero eta gehiago). Izatez, Kultura Saila Lurralde Autonomoko herritar guztien zerbitzutan dago, bere jardunean euskaldun izan ala erdaldun. Kultura Sail honek euskaraz bizitutako (sortu, hedatu eta jaso, alegia, komunikazioaren katea bere osotasunean harturik) kulturarekiko arreta eta kezka berezia duen arren, erdarazko kultur produkzioa ere Euskal Herriko kulturaren adierazpen kontsideratzen du, noski. Euskal Herriaren etorkizuna elebitasunean ikusten dugu. Euskadi elebiduna aldarrikatzean datza Kultura Sailaren jardunaren ardatz nagusietako bat.

Gure helburua elebitasuna lortzean datza, baina hau ez da herri elebiduna. Euskaldunak dira hemen elebidunak. Beraz, herri elebidun baten alde egiteak, euskalduntzearen alde egitea dakar.



## 2.2- SEKTOREAREN PROTAGONISMOA.

Kultura Sailaren zeregina ez da kultura sortzea, sortzeko baliabideak jartzea, ortutakoa babestea eta hedatzea baizik. Administrazioak baliabideak jarri behar ditu, kultur jardunak aurki ditzakeen oztopoak gainditzeko bideak zabalduz. Horretarako, kultura sortzen duten profesionalekin batera lan egin beharko du, haiekin koordinatuz, lankidetzaz bilatuz eta kultur jardunaren markoak antolatuz. Kultura Sailak ezin du kulturaren protagonista horiek sortzen ez dutenik sortu; arlo guztietan bilatzen dugu bertako profesionalen protagonismoa. Euskararen aldeko lana ere ildo horretatik ikusten dugu: Ezin du Administrazioaren bizkar geratu, berari bakarrik balegokio bezala.

Honen harira, arrisku bat azpimarratu nahi nuke: euskararen aldeko ekintzak hutsik borondate politikoaren ondorio eta administrazioaren eskakizun huts baitliran agertzen badira ez dute jarraipenik izango, administrazioak markatutako portzentaia batekin (zerga sinboliko baten moduan) kunplitu behar hutsen geratuko da. Gertatu da: zineman, antzerkian (lehen orain baino gehiago), komunikazio arloan.



## 2.3- KOMPETENTZIAK.

### 2. 3 A- SAIL BAKARRAREN MUGAK.

Kulturak, oso arlo zabala eta konplexua izanik, Kultura Sailaren lan esparru mugatua maiz gainditzen du. Kulturak, industria bat ere badenez, eta garrantzia handikoa gainera bai ekonomikoki eta bai estrategikoki, Industria eta Komertzio Sailen zereginekin egiten du muga. Berdin, euskararen sustapenari dagokion aldetik, HPINekin. Hitz bitan: kulturak planteatuta dituen arazoak ezin dira hutsik Kultura Sailetik konpondu.

Sailez gaindiko elkar lana onuragarri izan dadin, euskararen plangintza orokorrak premiazko izango zaizkigu.

### 2. 3 B- LURRALDE TASUNA.

Gauza jakina da euskararen lurraldetasunak Komunitate Autonomoa gainditu egiten duela. Euskararen aldeko ekimen askotan azaltzen zaigu muga administratiboan oinarritua, eta luzaroan gertatuko dela dirudi. Eusko Jaurlaritzak ezin du euskararen lurralde guztian jardun, errealitate politikoak zehatz markatzen baitizkio muga administratiboak. Hala ere, ahal den guztietan euskarak muga horien gainetik zubi egin





dezan saiatzen gara, ulertzen dugulako euskarazko kultur ekimen baten eremua berez dela gure administrazioa baino zabalagoa. Gure Estatua baino zabalagoa ere baden neurrian, kultur lankidetzak europarraren eredu izatera joan beharko genuke, mugak zabalago egiteko prozesuak gure alde egin dezan.

Izan ere, Gure Komunitatea Espainiako Estatuan dago kokatua eta Europako Komunitatean. Bai Espainiako eta bai Europako Administrazioa kulturarako laguntzen eta baliabideen iturri dira, euskal kultura haien ondasun ere badelako. Laguntza modu horiekin koordinatu beharko dugu, indarrak batera ahal izan ditzagun. Bestalde, Espainia eta Europa gero eta neurri handiagoan dira gure kultur produktuen hedagune, eta batzutan, merkatu. Euskaraz sortutako kulturak ere jauzi hori egiteko ahalbideak eskeintzea da gure kezka handienetako bat.

## 2.4- ERRENTAGARRITASUNA ETA ERAGINKORTASUNA.

Gero eta garrantzi handiagoa hartu du errentagarritasunaren konzeptuak. Hiru arrazoinetan laburbilduko dugu honen zergatia:

Kultura industria bilakatu da eta nazioz gaidikoa gainera. Industria kultural sendorik gabe etorkizun beltz-beltza genuke. Errentagarria behar du kulturak industria bezala jarduteko. Eta errentagarritasunari arreta berezia jartzen baldin badiogu da, berandu baino lehen, euskal kulturak ere industria gisa funtziona dezan lortu behar dugulako.



Kultura Sailak ezin du kultura industriarekin berdindu, baina ezin du industriari bizkar emanek jokatu. Agian, Kultura Sailaren eginkizuna industriak bere baitan hartuko ez dituen kultur ekimenak babestea izan liteke, baina gure egoeran, Kulturak Sailak industria esistitu eta indartu dadin lan egitea ezinbestezkoa du. Eta euskarazko kulturaren are gehiago.

Errentagarritasunaz hitz egin beharra dago baliabide pribatuen partaidetza lortzeko. Ekimen pribatuaren parte hartzea ezinbestezkoa zaigu, baliabide publikoak urritzen ari direlako, batetik, eta gizarteko agente eragileen inplikazioa lortzen duen heinean, iraunkortasunaren garantia delako, bestetik.

Ekimen pribatuak, zuzenean ekonomikoa ez denean, irudian bilatuko du errentagarritasuna. Euskarari erantsitako ezaugarri positiboak indartzen, euskararen irudiarekin onura sinboliko eta errealak identifikatzen saiatu beharko dugu etengabe.

Azkenik, errentagarritasunari erreparatzeak, bere zentzurik zabalenean eta aberatsenean, publikoari (hartzaileei) begira jartzen gaitu, eta kultur ekimenek jendearengan sor dezaketen interesaz kezkatzera garamatza, hau da, ekimen horien emaitza aztertzeraz eta baloratzera.

Ekimen kulturelek arrakasta izan duten baloratu ahal izatea, -eta arrakasta ez da hutsik kuantitatiboa eta ekonomikoa-, gure jardunaren kontrolerako erizpide inportantea da: asmatu dugun ala ez dugun argituko digun klabeetako bat.





## 2. 5- URRITASUNA

Nahi bada, balorazio kuantitatiboari errentagarritasuna esango diegu, eta balorazio sozialei eraginkortasuna; baina biek adierazten dute kultur ekintzen balantzea egin beharra, hau da kontuak eman behar diren ohituraren aldeko apostua.

Are gehiago, Administrazioak ez du kulturaren arloetatik egiten zaizkion eskaera guztiak asetzeko ahalmenik. Gure baliabideak urriak dira, eta gainera, kulturaren hazkuntza eta hedatzea ezin ditugu hutsik Administrazioaren bizkar eraiki. Bestelako baliabideen partaidetza lortzeko gai izaten joan beharko dugu, kulturaren egoera sendotuko badugu, behintzat.

Ekimenak ahalbait eraginkorren izan daitezzen balorazioak behar-beharrezkoak zaizkigu, eta beraz, euskalduntze prozesuetan lagungarri izango diren kriterioak landu beharko dira. Euskarari onuragarri izan dakioken guztiaren artean aukeratu beharra dago, eta egongo da, ezinbestean. Nola egokitu kontrolerako neurriak euskararen egoerari? Guztia da ona euskararentzako? Guztia da neurri berean ona?

Emaitzak aztertu behar badira, zein dira erizpideak, "euskarari zor zaiola" esateaz gain, onuragarri, eraginkor edota errentagarri- izan den ala ez jakiteko? Kulturaren eta euskararen ikuspuntutik, emaitza ekonomiko eta kuantitatiboak ez dira nahikoa. Badakigu askotan, parametro industrialetan, galera dakarrela, baina dirua horretarako dago baldin eta zenbat gal genezakeen badakigu, eta zer irabazteko ari garen galtzen.





## 3. KOMUNIKAZIOA

Ikuspegi orokorra ematera mugatu behar dugunez, komunikazioaren eskemaz baliatuko gara gure ikuspegiaren ardatz nagusiak argitzen saiatzeko. Eskema konplexuagoak beharko liratekela jakinik ere, zilegi bekigu igorleaz, hartzaileaz, bitartekariaz hitz egitea.

Mezuaz ez gara mintzatuko, bera izanik ere komunikazioaren funtsa, komunikatzen den zera hori, kultur ekoizpena. Izan ere, etzait iruditzen argibide askorik behar duenik, ez baita Administrazioaren ardura nolako mezuak zabaldu behar diren erabakitzea, ez bada gizartean bultzatu behar liratekeen hainbat balorekiko (sexismorik, arrazakeriarik, bortxakeriarik eza, etab.) gutxieneko errespetua ziurtatzea. Era berean, balio kulturalen eta hutsik komertzialen arteko bereizketa egitea ez dagokio txosten honen gaiari.

### 3.1- IGORLEA.

#### 3. 1A-

*Igorlea* kulturgilea litzateke, kultura **sortu** egiten duena, Lurralde honetako bi hizkuntza ofizialetako batean. Ez gara norbanakoaz ari, askotan lan-taldeak edota enpresak izan daitezke eta. (Antzerkian, musikan, dantzan, zineman)

Definizio honek bi ondorio nagusi ditu:





Gaztelaniaz diharduten kultur sortzaileak euskal kulturaren partaidetzat ditu, hau da, Euskal Herrian kultura bi hizkuntzetan egiten dela aitortzen du. Bi hizkuntzak onartzen ditu gure kultur hizkuntza bezala. Beraz, gaztelaniaz diharduten kultur sortzaileak ere gure kulturaren partaide eta ondare dira, horiek ere merezi dutelarik Administrazioaren laguntza, babesa eta bultzada.

Euskaraz diharduten kultur sortzaileak kualifikatu egiten ditu, hau da, lantzen duten alorrerako gaitasunaz definitzen ditu, beste edozein kultur sortzailerri dagokion errespetuaz. Guretzat, kulturegile eta sortzaile euskaldunak, lehen lehenik idazle, antzesle, zinemagile edota musikari dira, sektore kultural horiek dituzten arazoak beste edonor bezala bizi dituztenak, edo hobe esanda, askotan, besteek baino era larriagoan. Beren jarduna kulturaren alor bakoitzean aztertuko dugu, euskararen munduaz beste mundu bat egin gabe, parametro eta erizpide desberdinetan aztertzen dena.

Honek ez du esan nahi hizkuntza aukerak ondoriorik ez duenik eta egoera orekatua denik. Baina kasu guztietan ere, egileei begira, Kultura sailak lan baldintzak hobetzen eta duintzen lagundu behar du (batez ere mekanismoak arbitratuz), sortzaileen lanabesak (informazioa barne) egokitzen, eguneratzen, eta bere lanaren oihartzuna hedatzen. Egin duen aukera linguistikoa egin duela ere.





Baina aukera linguistikoek ondorio konkretuak dakartzatenez, Administrazioak desorekak konpentsatzen saiatu beharko du, eta ahal duen neurrian, euskararen eta euskal kulturaren erabilera bultzatzen.

### 3.1C- HIZKUNTZA AUKERAK:

#### **Gaztelania hutsez:**

Gure Herrian kulturgintzan gaztelaniaz dihardutenak elebakarrak izan dira gehienetan (gure hizkuntza ofizialei dagokienez). Askok ez du bizi izan euskara, ez du ezagutzen euskarazko kultura, eta maiz ez du interes berezirik agertzen. Hauei begira, euskararen prestigioa eta ezinbetezkotasuna bultzatu beharko dira, euskararik eza hutsune eta galera zaiela ikus dezaten.

Hala ere, gizartea euskalduntzen joan den neurrian, kultura gaztelaniaz egiten dutenen artean ere gero eta gehiago dira euskaldun direnak (edo izan daitezkeenak) bizi arruntean, eta orohar euskarazko kultura ezagutzeko gai direnak edo izan daitezkeenak.

Kontestu zabalagoan egiten dute, orohar, lana, "gaztelaniaren unibertsoan", nolabait esateko, horrek dakarren bideragarritasun eta proiektio handiagorako ahalmenarekin. Merkatu zabalagoak dituzte, (kanpoan bezala, bertan) eta kultur nahiz informazio sareak euskararenak baino askoz ere sendoagoak eta oparoagoak.



## Euskara hutsez:

Orohar, kultura euskaraz egitea aukera bat da oraindik ere. Lanabes mugatuagoekin lan egin beharra esan nahi du askotan, sare eta merkatu urriagoetan. Gazteenei, -eta hainbat alor jakinetan-, euskaraz jardutea berezkoa gertatu zaie, "naturala", baina gehienetan euskararena egunero egin beharreko aukera bat da oraindik ere.

Merkatu urriagoa dute, kanpoan bezala barruan, eta nazioz gaindiko harremanak zailagoak, errekonozimendu aukera eskasagoak. Gero eta handiagoa da gaztelania zubi hizkuntza gisa erabiltzeko joera, eta garrantzitsua da, gainera, baina saiatu beharko genuke ziurtatzen euskaratik egin daitekeela edonora jauzi, horretarako zubiak ugaritu beharko ditugularik. Euskarazko jardunak behar du autonomia neurri bat, sinbolizazio mundu berezi bat, gorputz bat. Erderetan egiten ez den lanak ere merezi du onespenez. Eta profesionalizaziorako bideak hutsik gaztelaniak zabaltzen baditu, menpekotasunera kondenaturik aurki gintezkeelako.

## Bi hizkuntzetan:

Euskaldunen artean gero eta gehiago dira bere burua elebiduntzat daukatenak, aktore, esatari, idazle, zinemagile, etab., bi hizkuntzetan aritzen direnak, biak hizkuntza propioak kontsideratuz. Azpimarratzekoa litzateke fenomeno hau garbiago antzematen dela zenbat eta jardun horrek industriarekin lotura handiagoa izan, eta hizkuntzaren aukera ez dela egilearena hutsik, baizik eta haren lana eskatzen duenarena (bitartekaria nahiz publikoa).



## 3.2- BITARTEKARIA

*Bitartekaria* kultur eragileari esaten diogu, sortzailearen eta hartzailearen arteko zubia posible egiten duenari, hala nola kultur etxeetako, arte guneeetako, hedabideetako arduradunak, programatzaileak, etab. Bitartekariak dira, eraberean, produktu bat hedatzeko beharrezko behar diren saltzaileak, zabaltzaileak, etab. gehienetan Administrazioaren alorretik at, merkatuaren legeen arauera jokatu behar izaten dutenak.

Elebitasuna posible izango bada, bitartekariok euskaraz sortu edo ekoiztutako lanak ulertzeko gai izan beharko dute. Euskaraz jakin behar dute herri honetan sortzen den kultura bere osotasunean ezagutzeko gai izango badira. Beren lanari dagokion konpetentzia maila ez da euskaraz jakiteaz aparteko kontua; euskal produkzioen eta euskal publikoaren ezagutza dago jokuan, eta beraz bere lanaren muin-muineko arazoa da.

### 3.2 A - ADMINISTRAZIOAREN ESKU:

Euskaldunekin euskaraz harremantzeko gai izan behar du beraz bitartekariak, hau da, euskara lan hizkuntza izan beharko du, bakarra izango ez bada ere. Bide honetan Kultur Sailak Administrazioan eragin dezake, eragozpenak, eragozpen, baina ez du bitartekari pribatuengan eragiteko ahalmen handirik. Administrazioari dagokionez, oreka bilatu beharko du beti, hizkuntz gaitasun eskasaz ere gaitasun tekniko handiko jendea behar izango baitu lanean. Beharbada, arlo guztietan ekipoen garrantzia indartzen dijoanez, ekipoen, lan taldeen, gaitasun linguistikoa ziurtatzera jo beharko dugu aurrenik.



### 3. 2 B - PRIBATUAK

Bitartekari pribatuek, esan bezala, merkatuaren legetan egiten dute lana. Gero eta gehiago dira bitartekari pribatu euskaldunak, baina oraindik ere merkatua, orohar, gaztelaniaz mugitzen da. Lan hizkuntza, harreman hizkuntza, eta, gehienetan, ekimenaren hizkuntza gaztelania izan ohi da. Euskarazko kultur produkzioek merkatu horretan gero eta leku handiagoa izan dezaten saiatu beharko dugu, eta haiekin harremanak euskaraz izan daitezen baita ere. Zaila da, eta are zailagoa nazioz gaindiko banatzaile, ekoizle nahiz, orohar, bitartekariez ari garelarik.

### 3.3- HARTZAILEA

*Hartzailea*, txosten honetan publikoari esango diogu. Gure eritziz garrantzi berezia dauka publikoak, gero eta erabakiorragoa bihurtzen ari delako kultur produkzioan. Honela, euskal (euskarazko) kulturaren etorkizuna euskal publikoak ziurtatuko du, bera gabe ez delako burutzen kultura den komunikazio katea, berak egiten dituelako euskarazko kultur ekoizpenak, ideologiaren gora beheren gainetik, beharrezko eta "berezko". Euskara bizi dutenek, euskaraz bizi direnek, euskaldungoak ziurtatuko du euskarazko kultur jardunen etorkizuna.

### 3. 3 A- EGUNGO ETA GEROKO PUBLIKOAK.

Ezin dugu ahaztu, publiko hori, hedadura sare eta merkatu hori, egin egiten joan direla, borondatezko lanaren poderioz. Editorialek gauzatu zuten euskal irakurlego bat, euskal telebistak sortu du inkusentzulego euskaldun bat, euskal aldizkari eta egunkariak eraiki dute informazio sarea euskaraz lan





egiteko ahalbidea, publiko bat barne. Kultura Sailak etorkizunerako apostuak egiten jarraitu beharko du jakinik punta puntako kulturak beti sortu behar izaten duela bere publikoa; horrela eraberritzen du eta aberasten du herri oso baten kultura. Euskara gure ondasun kulturalik puntakoena dela uste dugulako egin nahi dugu euskarari publiko berriak, gero eta jasoagoak, zabaltzeko apustua.

### 3. 3 B- PUBLIKO ELEBIDUNA

Berriz ere publiko euskalduna elebiduna dela azpimarratuko dugu. Erderaz egindako kultura ez balegokio bezala jokatzea litzateke erderaz dagoena euskaraz ere jasotzeko eskubideaz mintzatzea. Eskubide horiek errespetatuta ere, komunikazio arloan batez ere, hainbat arlotan (aldizkari, zine emanaldi, egun berean bi hizkuntzetan programatutako antzerki, luzemetraien itzulpen, etab.) *elebitasun erabatekoa* esan diogun hori, alferrikakoa gertatu da maiz askotan. Euskaldunaren kaltetan gertatzen da, mezua errepikaturik ematen zaiolako, eta gehien gehienetan erakargarriagoa izan ohi zaio jatorrizkora jotzea (gaztelaniara beraz, jokabide honek ez baitu sortzaileen arloan euskalduntzea eragin) itzulpenera baino. Euskaldunari zirkuito berezi bat eskeintzen dio, baina ez dio besteak ematen ez dionik ematen. Gure jomuga urrunago ipini beharko genukeela uste dut, euskarari, euskarazko kultur produkzioari, balio erantsi bat emanaz.

### 3.3. C - PUBLIKO NATURALA.

Euskarak badu publiko naturalik, berezkorik: baserri kulturarekin lotutako adierazpen kulturaletan, adibidez (Arabaren salbuespenarekin, non euskararen fenomeno urbanoagoa den herri txikietakoa baino), eta orohar, bizigune euskaldunetan, egoera soziolinguistikoak euskaraz bizitzea naturalagoa egi-





ten duen zonaldetan. Gune hauetan euskalgintza eta kulturgintza lanak batera doaz, nahiko era naturalean, eta urteotarako ahaleginak kordinatze aldera jo beharko luke, euskal zirkuitoak sortzen eta sendotzen saiatuz.

Euskarari urteotan beste publiko mota bat sortu zaio, euskaldungo "natural" berri bat. Euskal Herrian haurrekin lan egiteko euskara erabili beharra gero eta garbiago ikusten da, euskara errealitate bat delako haurren artean. Ez da kasualitatea hutsik haur-literaturak erakarri izana Estatuko editorialen interesa, haurrentzako antzerkigintza edota marrazki bizidunak izatea euskaldunenak, antzerkigintzarekin eta zinemagintzarekin alderatuz gero, etab.

Koskortzen joan ahala euskara erabiltzeko ohitura ahuldu egiten dela dirudi. Erderarako joera handia hartzen du gazte jendeak, agian, errealitatean, behin ikastetxetik aterata, euskarari prestigio gutxi, erakar-men eskasa eta mugatua ikusten dizkiotelako. Berriz ere, gizarteak bezalatsu, gazte jendearen zati batek euskararen apustua ideologikoa (eta politikoa) egiten du, (esparru ideologikoen ezaugarri bihurtzeko eta beraz, esparru ideologiko horietara mugaturik geratzeko arriskuarekin). Beste asko apustu ideologikorik egin behar izan gabe dira euskaldun, batzutan inguruak, eskolak ia beti eta hainbatetan lanpostuak eraginik. Belaunaldi berri horrek, trebakuntza maila handia duenak, euskararenganako ikuspegi ideologizatua nahiz desideologizatua izan, euskaldungoaren parte garrantzitsua osatzen du, euskararen berrikuntzan garrantzia handikoa, eta gure jardunean interes berezikoa. Publiko "natural" berriotan datza euskal kulturaren sendotasunaren giltza.



### 3.3 D - EUSKALDUN "PASIBOAK".

Publiko zabalagoen bila, jarrera "pasiboa" agertzen dutenei jo beharra daukagu: euskara naturaltasunez (eta obligazioz, askok) jaso dute, baina ez dute euskararenganako jarrera aktiborik; aukerarik erosoena, errazena edo erakargarriena egingo dute eta hori, tamalez, gutxitan izaten da euskara. Esan liteke gaitasun handiagoa dutela beren harremanak euskaraz bideratzeko, eskolatzearen poderioz, baina gero, eguneroko jardunean euskaraz bizitzeko arrazoin praktikoak behar izaten dituztela. Euskara onuragarri izango zaien neurrian erabiliko dute, lana lortzeko erabiltzen duten logika berarekin. Publiko horrek, desiragarri zaion zerbait dastatzeko euskara behar baldin badu, erabili egingo du. Berdin (eta sarritan erosoago) jasoko luke gaztelaniaz, baina ahalegina egiteko arrazoinik aurkitu ezker, egingo luke. Publiko pasibo horretan datza euskararen publikoa zabaltzeko giltza.

Beharbada, publiko honengan ikusten da garbien erabateko elebitasunaren eraginkortasunik eza. Mezu berbera bi hizkuntzetan zabaltzera mugaturik, hau da, "erabateko elebitasuna" esan izan zaion hori aplikatzera, erderaz egiten dena euskaraz ere egitera, ez bazaio euskarari leku edo zeregin edo balio berezirik ematen, pus bat jasotzeko bidea ez bada, aukera errazagoa izango da gaztelaniarena gehien gehienetan. Sistema honek itzulpena bultzatu izan du, eta sarri, kontrolik ez zaiolako egin edota balantzerik ez zitziolako eskatu, bete behar huts bilakatu izan da. Gainera, euskarari dagokion zeregina azken momenturako uzteko joera errazten du, euskara lan prozesutik aparte geratzen baita, gero kontrata daitekeen itzulpen zerbitzu soil bihurturik. Horrela, euskara konpromezu politiko eta administratibotzat harturik, euskararen erabilpena maila sinbolikoan egin izan da, ia maila testimonialean.



Berriro agertzen da "Elebitasun ez parekatu" baten beharra: iruditzen zait -bertako kultur produkzioari dagokiola- behar handiagoa daukagula euskarazkoa erdaratzeko, erdarazkoa euskaratzeko baino.

Hizkuntza  
politika





## 4. BALIO ERANTSIA.

Euskararen balio erantsiari begira, bide hauetatik jo nahi genuke:

Euskaraz jasotzen dena euskaraz bakarrik jaso ahal izateak euskara beharrezko egingo du hainbat kultur adierazpenez jabetzeko. Euskaraz bakarrik jaso daitekeen hori desiragarri egiten ahalegindu behar dugu.

Euskaraz erderaz baino lehenago, edo erosoago, edo baldintza berezietan jaso ahal izateko bidea eman, euskara onuraren batekin lotuz. Publikoaren eta ekimenaren arauera, kalitatea, nobedadea, eta bestelako eragileak bilatu beharko dira.

Euskarazkoaren berri eman, euskaldunei bezala erdaldunei, oihartzun eta erakarmen bila. Ezagutzera emateaz gain, ospatu ere egin behar dira euskarazko kulturaren emaitzak. Euskararik ez dakienak zerbait "galtzen" duelako ideia zabaldu.

Ohar orokor hauek argigarri izango zaizkizuen esperantzan, eta argibiderik, datu zehatzik eta adibiderik nahi izan ezker, zuen beharretara jarritz, nire agurrik beroenak.

Amaia Rodriguez Hernandorena

